



Telefonoa erabiltzeko moduari buruzko informazio gehiago izateko, jo ezazu www.alcatelone-mobile.com webgunera, eta deskargatu erabiltzailearen eskuliburu osoa. Gainera, webgunean, ohiko galderen erantzunak, softwarearen eguneraketak (Mobile Upgrade-ekin erabiltzeko) eta beste gauza asko dituzu.

3026

**Euskaltelek itzultako eta
ekoiztutako eskuliburu**



Eduki-taula

1 Martxan jartzea	5
1.1 Konfiguratzea.....	5
1.2 Telefonoa piztea	9
1.3 Telefonoa itzaltzea	10
2 Zure telefonoa	11
2.1 Teklak.....	11
2.2 Egoera-barrako ikonoak.....	16
3 Deiak egitea	17
3.1 Deiak egitea	17
3.2 Ahots-postontzira deitzea.....	21
3.3 Deiak jasotzea.....	22
3.4 Dei bat martxan dela.....	23
4 Laguntza (SOS)	25
4.1 SOS aukera aktibatzea.....	25
4.2 SOS kontaktuak.....	25
4.3 SOS mezuak.....	25
4.4 SOS deia egitea.....	25
5 Menu-pantaila	26
5.1 Menu nagusira sartzea.....	26
6 Kontaktuak	27
6.1 Agenda kontsultatzea.....	27
6.2 Kontaktua eranstea	27
6.3 Kontaktuak ezabatzea.....	29
6.4 Erabilgarri dauden aukerak	29
7 Mezuak	31
7.1 Mezua idaztea	31
7.2 Mezua irakurtzea	33
7.3 Doikuntzak	34
8 FM irratia	35
9 Kamera	39
9.1 Kamera.....	39
9.2 Bideoa	40
10 Alarma	42
11 Aplikazioak	44
11.1 Kalkulagailua	45
11.2 Egutegia	45
11.3 Oharrak	45
11.4 Nire fitxategiak.....	45
11.5 Bluetootha.....	46
11.6 Dei-iragazkia.....	46
12 Multimedia	46
12.1 Internet.....	47
12.2 Galeria	47
12.3 Bideoak.....	47
12.4 Bideo-grabagailua	48
12.5 Grabagailua.....	48
13 Doikuntzak	48
13.1 Telefonoaren doikuntzak	49
13.2 Profilak.....	50
13.3 Deien doikuntzak	51
13.4 Laguntza.....	53
13.5 Konexioak	53
13.6 Segurtasuna.....	54
13.7 Arauak eta segurtasuna	56
13.8 Balioak berrezartzea	57
13.9 Informazioa.....	57

14 Testua idazteko modua.....	58
Erabiltzeko oharrak	59
Uhin elektromagnetikoak	68
Informazio orokorra	74
Telefonoaren bermea	79
Arazoak eta irtenbideak	83





Telefono honek 2,0 W/kg-eko estatuko SAR muga errespetatzen du. Gehieneko SAR balio espezifikoak **Uhin elektromagnetikoak** atalean azaltzen dira.

Produktua garraiatzean edo gorputzetik gertu daramazunean, erabili horretarako onartutako osagarri bat (estalki bat) edo gorputzetik 5 mm-ra izan, irrati-maiztasunen esposizioei buruzko eginbeharrak betetzen direla bermatzeko. Kontuan izan produktuak erradiazioa igor dezakeela deitzen ari ez bazara ere.

1 Martxan jartzea

1.1 Konfiguratzea



Atzeko estalkia ateratzea edo jartzea





5

Bateria jartzea eta ateratzea

Sartu bateria, eta lerratu bere lekuan klik egin arte.




Ireki tapa, eta, gero, atera bateria.



6

SIM/SD txartela sartzea eta ateratzea.


Deiak egiteko, SIM txartela sartu behar duzu. Jarri SIM/SD txartela txipa beherantz duela, eta sartu dagokion tokian. Egiaztatu behar bezala sartuta dagoela. Txartela ateratzeko, sakatu, eta atera kanporantz.



7

Bateria kargatzea

Telefonoa honela karga daiteke:



Telefonoa kargatzeko, haren azpiko konektorea karga-euskarrian jarri behar da, eta, ondoren, bateriaren kargagailua euskarria konektatu eta korrante hartune batera entxufatu.

b.



8

Konektatu bateria-kargagailua telefonora, eta entxufatu korronte-hargune batera.

Ez behartu konektorea korronte-hargunean sartzen duzunean.

Egiaztatu bateria ongi sartu duzula kargagailua konektatu aurretik.

Korronte-harguneak telefonotik gertu egon behar du, errazago iristeko (luzapen elektrikorik ez erabiltzea gomendatzen da).



Bateria- eta energia-kontsumoa gutxitzeko, bateria erabat kargatuta dagoenean, deskonektatu kargagailua entxufetik, murriztu hondoko argiaren denbora, eta abar.

1.2 Telefonoa piztea

Luze sakatu  tekla telefonoa piztu arte.

1.3 Telefonoa itzaltzea

Luze sakatu pantaila nagusiko  tekla.

2 Zure telefonoa.....

2.1 Teklak




1 Kontaktu garrantzitsuenak (10)


2 Posta elektronikoa

3 Linterna


4 Ahots-postontziaren tekla



Kamera



Laguntza-tekla (SOS)



Pantaila nagusian:

- Sakatu: Menu nagusira joateko.



Deitzeko tekla

- Telefonoa hartzeko / Deiak egiteko
- Sakatu: deien erregistroa irekitzeko (itxarote-pantailatik)



Karakterek ezabatzeko (editatzeko moduan)

- Atzera itzultzeko
- Kontaktuetara sartzeko



- Sakatu: Deia amaitzeko Itxarote-pantailara itzultzeko

- Luze sakatu: pizteko/ itzaltzeko



Pantaila nagusian:

- Sakatu: 0
- Luze sakatu: "+/p/w"

Editatzeko moduan:

- Sakatu: ikurren taulara sartzeko.
- Sakatu: 0 (testua idazteko modua **gehitu zenbakiak** denean).
- Luze sakatu: 0



Pantaila nagusian:

- Sakatu: *

Editatzeko moduan:

- Sakatu: idazteko moduak aldatzeko.
- Luze sakatu: idazteko moduen zerrendara sartzeko.



Pantaila nagusian:

- Sakatu: #
- Luze sakatu: markaketa bizkorrera joateko.

Editatzeko moduan:

- Sakatu: (zuriunea)

2.2 Egoera-barrako ikonoak ⁽¹⁾



Bateriaren karga-maila.



Dei-desbideratzea aktibatuta.



Alarmak edo hitzorduak programatuta.



Estaldura-adierazlea.



Roaminga.



Irakurri gabeko SMSa.



Modu isila



Dei galduak.




Bibragailua.

⁽¹⁾ Eskuliburu honetako ikonoek eta irudiek orientazio gisa balio dute.

 Entzungailuaren modua.



 Bluetooth-aren egoera.

 Konexio-egoera
GPRS.





3 Deiak egitea.....

3.1 Dei bat egitea


Markatu nahi duzun telefono-zenbakia, eta sakatu  tekla dei bat egiteko. Akatsen bat egin baduzu, sakatu  tekla zenbaki okerrak ezabatzeko.

Deien historiatik ere deitu dezakezu:

Lehenik, sakatu  tekla, pantaila nagusian, deien erregistrora sartzeko eta deitu nahi duzun kontaktuaren zenbakia hautatzeko. Orain, hautatu **Aukerak**.



Hautatu **Deitu**.




Agendatik deitu nahi baduzu, hautatu **Kontaktua**\ **Aukerak**\ **Deitu**.


Menu nagusian, aukeratu **Kontaktua**.



Hautatu markatu nahi duzun zenbakia, hautatu **Aukerak** eta, azkenik, hautatu **Deitu**.



Esekitzeko, sakatu  tekla (hautatu **Amaitu**).




Larrialdiko deiak egitea

Zure telefonoa sareko estaldura-eremuan badago, markatu larrialdi-zenbakia eta sakatu bidaltzeko tekla, larrialdi-deia egiteko. SIM txartelik gabe ere funtzionatzen du, baita PIN kodea sartu gabe ere.

3.2 Ahots-postontzira deitzea ⁽¹⁾

Ahots-postontzira sartzeko, sakatu luze **1** tekla. Ahots-postontzia editatzeko, hautatu **Mezuak\Ahots-postaren zerbitzaria\Aukerak\Editatu** eta ahots-postontziko izena eta zenbakia editatu ahal izango dituzu.


Azkenik, hautatu **Ados**.




3.3 Deiak jasotzea


Deia jasotzean, sakatu **U** tekla deia hartzeko, eta, ondoren, sakatu **☎** tekla deia amaitzeko.

⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun ala ez.



 ikonoa bistaratzen bada, bibrazioa aktibatzen da, eta ez du tonurik jotzen.

 ikonoa bistaratzen bada, ez bibrazioa, ez txirrina ez daude aktibatuta.

 Deitzen ari den pertsonaren telefono-zenbakia bistaratuko da, baldin eta sareak horretarako aukera ematen badu (galdetu zure operadoreari zerbitzu honen berri).

3.4 Dei bat martxan dela ⁽¹⁾

Dei batean, aukera hauek daude erabilgarri:

- Esku libreak (Aukerak\Esku libreak)

⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun ala ez.

HAC (entzuteko laguntzarekin bateragarria)

Dei batean, bolumena doitu dezakezu gora/behera egiteko tekla edo alboko tekla erabiltuta.



Urrundu telefonoa belarritik esku libreko aukera erabiltzen duzunean, entzumenari kalte egin baitiezaioke bolumen altuak.

Bi deiri erantzutea

- Bigarren dei bati erantzutea (egiaztatu "**Utzi zain**" aukera aktibatuta dagoela).

4 Laguntza (SOS).....

SOSren funtzioak konfiguratzeko, zoaz hona: Ezarpenak > Laguntza (SOS).

4.1 SOS aukera aktibatzea

SOS funtzioa aktibatzeko, sakatu **Aktibazioa**.

4.2 SOS kontaktuak


SOS kontaktuetara SOS zenbakiak gehitzeko, hautatu **Kontaktuen zerrenda**, eta sakatu **Aukerak > Editatu** SOS zenbakiak editatzeko.

4.3 SOS mezuak

Hautatu **Mezua** SOS mezuak editatzeko.


4.4 SOS deia egitea


Luze sakatu SOS tekla, 2 segundoz, larrialdi-dei bat egiteko. Dei bat amaitzeko,


sakatu . Bolumena doitzeko, sakatu eskuineko aldean dauden +/- bolumen-teklak.

5 Menu-pantaila.....

5.1 Menu nagusira sartzea

Sakatu  itxarote-pantailan, menu nagusira sartzeko.

Menu nagusia erabil daiteke gogokoenak hautatzeko,  eskuinera edo ezkerrera sakatuta.



6 Kontaktuak.....

6.1 Agenda kotsultatzea

Funtzio honetara sar zaitezke menu nagusian **Kontaktua** aukeratuta.

Kontaktua bilatzea


Kontaktu bat bila dezakezu, haren izenaren hasiera idatzita. Bilaketa hobetzeko, letra gehiago idatz ditzakezu.

Kontaktu bat ikustea

Hautatu aurkibideko izen bat, kontaktuari buruzko informazioa ikusteko.


6.2 Kontaktua gehitzea

Kontaktu berri bat gehitu dezakezu telefonora edo SIM txartelera **Ados** sakatuta eta **Berria** hautatuta, eta "Kontaktu berria" pantailara joanda.

Lehenik, sakatu  itzarote-pantailan, **Kontaktua** aukerara joateko, eta hautatu **Ados**.




Ondoren, hautatu **Berria**.



Hirugarrenik, kontaktu berria telefonoan edo SIM txartelean sartu nahi duzun hautatu. Azkenik, editatu izena eta zenbakiak, eta gorde.

6.3 Kontaktuak ezabatzea

Hautatu ezabatu nahi duzun kontaktua, eta hautatu **Aukerak**.



Ondoren, hautatu **Ezabatu** kontaktua ezabatzeko.

6.4 Erabilgarri dauden aukerak

Kontaktuen zerrendan, honako aukera hauek dituzu:

Ikustea

Hautatutako kontaktua ikus dezakezu.

Deitzea

Hautatutako kontaktuari deitu diezaiokezu.

SMSa bidali

SMS/MMS mezua bidali diezazkiokezu **Kontaktua** aukeran hautatutako kontaktu bati.

Editatzea

Fitxategi baten edukia aldatu dezakezu: izena, eta abar.

Hainbat ezabatzea

Aldi berean kontaktu bat baino gehiago ezabatu ditzakezu.

Inportatzea/Esportatzea:

Telefono edo SIM txartel batetik edo batera kontaktuak inportatu edo esportatu ditzakezu.

Markatze bizkorra

Markaketa bizkorreko zenbakiak ezar ditzakezu aukera honetan.



Biltegiaren egoera

SIM txartelean eta telefonoaren libre dagoen espazioa eta erabilia dagoena ikus dezakezu.

7 Mezuak.....

7.1 Mezuak idaztea

Mezuen pantailan, hautatu **Ados\ Berria** testu- edo multimedia-mezu bat idazteko.




Nola idatzi mezuak:

Sakatu 1etik 9ra arteko zenbaki-teklak hainbat aldiz, nahi duzun karakterea bistaratu arte. Sartu nahi duzun hurrengo letra sartu berri duzun tekla berean badago, itxaron kurtsorea agertu arte.

Adibidea. "**Alcatel**" idazteko, sakatu tekla hauek:

2 ABC, **5** JKL, **2** ABC, **2** ABC, **8** TUV --> **alcatel**.



Puntuazio-zeinu bat edo karaktere bereziren bat gehitzeko, sakatu *+ tekla.

Idatzi dituzun letrak edo ikurrak kendu nahi badituzu, sakatu  banan-banan ezabatzeko.

7.2 Mezua irakurtzea

Mezuaren pantailan, hautatu **Ados\Sarrerako ontzia** testu- edo multimedia-mezu bat irakurtzeko.

Nola irakurri mezuak:

Mezu bat jasotzen duzunean, jakinarazpen bat bistaratuko da itxarote-pantailan. Sakatu **Irakurri** hura irakurtzeko, edo **Irten** irakurri gabe uzteko.

Jasotako eta bidalitako mezu guztiak ikusi nahi izanez gero, hautatu **Mezuak\Sarrerako ontzia \Irteerako ontzia\Bidalitakoen ontzia**.

Mezu bat idazten ari zaren bitartean, hautatu **Aukerak**, mezuen aukera guztietara sartzeko.

Maiz bidaltzen dituzun mezuak "Zirriborro" gisa gorde ahal izango dituzu.


7.3 Doikuntzak

- **Mezu-zentroa**
Mezu-zentroa hautatu dezakezu.
- **Mezuen balio-epea**
Mezuen balio-epea hauta dezakezu. Aukera hauek daude: 6, 24 eta 72 ordu, 1 aste edo maximoa.
- **Egoeraren txostena**
Erabiltzen ari zaren memoria bistaratzen du: telefonokoa edo SIM txartelekoa.
- **Bidalitako mezu bat gorde**
Bidalitako mezuak gorde nahi dituzun hautatu dezakezu.
- **Biltegiratze gogokoena**
Mezuak gordetzeko bidea ezar dezakezu hemen.

8 FM irratia.....

Zure telefonoak FM irratia du ⁽¹⁾. Aplikazioa irradi arrunt gisa erabil dezakezu, eta kanalak gordeta eduki. Beste aplikazio batzuk exekutatzan dituzun bitartean ere entzun dezakezu irratia.

Lehenengo, irratia pizteko, hautatu **FM Irratia** menu nagusian.



⁽¹⁾ Irratiaren kalitatea une horretan zauden eremuan kateak duen estalduraren araberakoa da.

Ondoren, bilatu kanala, **Ados\ Aukerak\ Bilatu eta gorde automatikoki** hautatuta (funtzio hau lehenengo aldiz erabiltzen duzunean). Irrati-kateak automatikoki gordeko dira **Kateen zerrenda** aukeran; zerrenda horretan bertan hauta dezakezu bat.



Kanal bat hautatzea:

a. FM irradiaren pantaila nagusitik:

Joan **gora** eta **behera** kanala aldatzeko.


b. Kanalen zerrendatik:

Sartu FM irratian, hautatu **Aukerak\Kateen zerrenda**, eta hautatu nahi duzun kanala. Hautatutako kanalean aukera hauek dituzu: **Erreproduzitu/Ezabatu/ Editatu**.

Beste kanal bat gehitzea:

FM irratia aukeran sartu, hautatu **Aukerak\ Kateen zerrenda \<Hutsik>\Editatu** eta editatu **Katearen izena** eta **Maiztasuna** aukerak. Gero, hautatu **Gorde**.

Azkenik, irratia itzaltzeko, hautatu **"Aukerak\Itzali"**.



Erabilgarri dauden aukerak:

Itzali

FM irratia itzaltzen du.

Kanal zerrenda

Jasotako kateen zerrenda irekitzen du.

Kanala gorde

Aukera ematen du **"Kateen zerrenda"** zerrendan sartzeko une horretan sintonizatuta dagoen irratia. **Bilaketa auto**.

Automatikoki bilatzen hasten da, eta kateak automatikoki gordetzen dira **"Kateen zerrenda"** aukeran.


Maiztasuna sartzea

Maiztasuna eskuz sartzeko.

9 Kamera.....

9.1 Kamera

9.1.1 Argazki bat nola atera, gorde edo ezabatu

Pantailak bisorearen funtzioa egiten du. Fokuratu objektua edo paisaia bisorean, eta sakatu  argazkia ateratzeko. Hala, irudiak automatikoki gordeko dira. Ez baduzu gorde nahi, zuzenean ezaba dezakezu.

9.1.2 Doikuntzak fokatze-moduan

“Kamera” funtzioan sartzen zarenean “Kamera\Ezarpen gehiago\Argazkiak ateratzea aukeran, okuratzeko-moduan agertuko da. Erabili mugikorraren pantaila bisore gisa, eta sakatu “Ezarpen gehiago” aukera hauetara sartzeko: **Flasha, Tamaina, Distira, Kontrastea eta Efectua.**

9.1.3 Argazkia atera ondorengo aukerak


Argazki bat ateratzen duzunean, “Galeria” aukeran sar zaitezke hura ikusteko, Bluetooth edo MMS bidez bidaltzeko edo pantaila-irudi gisa edo pizteko/itzaltzeko irudi gisa erabiltzeko.

9.2 Bideoa

9.2.1 Enkoadratze-modua

“Kamera” funtzioan sartzen zarenean “Kamera\Ezarpen gehiago\Bideoak grabatzea” aukeran, fokuratzeko-moduan agertuko da. Erabili mugikorraren pantaila bisore gisa, eta sakatu “Aukera gehiago” aukera hauetara sartzeko: **Flasha, Tamaina, Distira, Kontrastea eta Efectua.**

9.2.2 Grabatze-modua

Doikuntzak hautatutakoan, zure bideoklipa grabatzen hasteko, sakatu  tekla.



Grabatze-moduan dei bat jasotzen baduzu, bideoaren grabazioa eten egingo da, eta automatikoki gordeko da.



9.2.3 Bideoa grabatu ondoren egin daitezkeen bestelako operazioak

Bideo bat grabatu ondoren hautatu dezakezu posta elektronikoa, MMS edo Bluetooth bidez bidaltzea edo “**Aplikazioa\ Bideoak**” aukerara joatea, hura ikusteko.

“**Nire Bideoak**” zerrendan, sakatu “**Aukerak**” bideoari izen berri bat jartzeko, pizteko/itzaltzeko pantaila gisa jartzeko, eta abar.

10 Alarma.....

Zure telefono mugikorrak iratzargailua du, eta errepikapen-funtzioa dauka. Alarma konfiguratu dezakezu menu nagusian **Alarma\Editatu\Ados** hautatuta.



- Ordua konfigura dezakezu Alarmaren goiko pantailan sartuz gero. Hautatu **Editatu**, alarma errepikatzeko denborak, errepikapen-tarteak, alerta-mota eta alarmaren tonua hautatzeko.

Errepikatzea


Behin (balio lehenetsia)/Egunero/Lanegunetan (al.-ol.) hauta dezakezu, zure nahiaren arabera.

Dei-tonua

Hauta ditzakezu **Dei-tonu lehenetsiak**, **Dei-tonu gehiago**, **FM irratia** edo **Grabaketa** alarmaren tonu gisa jartzeko.

11 Aplikazioak.....

Menu honetan sartu ondoren, sakatu **Ados** ondorengo funtzioetarako lehentasunak hautatzeko:
Kalkulagailu, **Egutegia**, **Oharrak**, **Nire fitxategiak**, **Bluetootha**, **Deien iragazkia**.



11.1 Kalkulagailua

Sartu zenbaki bat, hautatu zer eragiketa egin nahi duzun, eta sartu bigarren zenbakia. Sakatu **Berdin** emaitza ikusteko.

11.2 Egutegia

Menu honetara sartuta, hileko egutegi bat ikus dezakezu, datak kontsultatzeko.

11.3 Oharrak

Erregistratzeko beharra duzun testua erants dezakezu.

11.4 Nire fitxategiak

Telefonoan edo memoria-txartelean, **Nire fitxategiak** karpetan, jasotako soinu- eta bideo-fitxategi guztietara sar zaitezke.

11.5 Bluetootha


Bluetootha aktibatu/desaktibatu dezakezu, gailuen zerrenda ikusi, telefonoaren izena editatu, eta abar.

11.6 Dei-iragazkia

Menu honetan zerrenda beltz bat edo zerrenda zuri bat aukeratu dezakezu.

12 Multimedia.....

Menu honetan sartu ondoren, sakatu **Ados** ondorengo funtzioetarako lehentasunak hautatzeko: **Internet, Galeria, Bideoa, Bideokamera, Grabagailua.**





12.1 Internet

Sar zaitezke hasteko orri batera edo URL batera, eta ikusi zure **Gogokoak** eta **Historia**.

12.2 Galeria

Menu honetan zure argazkiak ikusi ditzakezu. Irudi edo argazki bat hauta dezakezu pantaila-atzealde gisa edo pizteko/itzaltzeko unerako pantaila gisa.

12.3 Bideoak

Aukera honetan sartuta, bideoak erreproduzitu, bidali, berrizendatu, ezabatu eta gorde ditzakezu, zure nahierara.

47

12.4 Bideo-kamera

Funtzio honekin, bideoak graba ditzakezu.

12.5 Grabagailua


Menu honetan, soinua grabatu eta biltegitatu dezakezu.

13 Doikuntzak.....

Pantaila nagusian, aukeratu **Ezarpenak/Ados**, eta, ondoren, aukeratu nahi duzun funtzioa telefonoa pertsonalizatzeko.



48



13.1 Telefonoaren doikuntzak

Telefonoaren doikuntzak aldatzeko, hautatu **Telefono-ezarpenak**, eta aukera hauek dituzu: **Pantaila, Data eta ordua, Piztu/Itzali automatikoki** eta **Hizkuntza**.

Pantaila

Funtzio honetan aukera duzu hauek hautatzeko: telefonoaren pantailaren atzealdea, distira, pantailaren argia eta teklatuaren atzeko argia.

Ordua eta data

Zure herria hauta dezakezu, eta eguna eta ordua doitu ditzakezu, 12/24 orduko formatua kontuan hartuta. Argia aurrezteko doikuntzak ere definitu ditzakezu, eta eguneratze automatikoak aktibatu, hala behar izanez gero.

Automatikoki piztea/itzaltzea

Funtzio honekin mugikorra pizteko eta itzaltzeko orduak programatu ditzakezu.

Hizkuntza ezarpenak

Mezuak bistaratzeko hizkuntzak: "Auto" aukerarekin, konektatuta zauden sareko hizkuntza hautatzen da (zure telefonoan hizkuntza hori erabilgarri badago).

13.2 Profilak

Menu honekin, soinuaren modua konfiguratu dezakezu: **Normala, Ozen modua, HAC Modua, Bilera** eta **Hegaldi modua**.

13.3 Deien doikuntzak

Erantzuteko tapa irekitzea

Menu honetan aktiba edo desaktiba dezakezu tapa irekita erantzuteko aukera.

Deiak desbideratzea

Deia desbideratzea

Aktibatu/desaktibatu edo egiaztatu ahots-postontzirako deiak edo zenbaki jakinen deiak desbideratzearen egoera. Aukera hau kasu hauetan aplikatzen da:

- Guztiak: dei guztiak sistematikoki desbideratzea. 📞 ikonoa agertuko da.
- Baldintzapekoa: zure linea okupatuta dagoenean, erantzuten ez duzunean edo saretik kanpo zaudenean.

Deia zain

Aktibatu/desaktibatu bigarren dei bat sartzean bip batez jakinarazteko aukera.

Dei murriztuak

Aukera hau kasu hauetan aplikatzen da:

- **Sarrerako dei guztiak**

Ezin da deirik jaso.

- **Sarrerako roaming dei guztiak.**

Sarrerako dei guztiak murriztuta egongo dira roamingean.

- **ISD deiak**

ISD dei guztiak murriztuta egongo dira.

- **Markatzea NAZIOARTEKO roamingean**

Nazioarteko irteerako dei guztiak blokeatzeko, ordainketa-herrialdera egindakoak izan ezik.

- **Dena bertan behera utzi**

Deien blokeo guztiak desaktibatzeke.

- **Pasahitza aldatzea**

Jatorrizko pasahitza aldatu eta dei murriztuen funtzioa aktibatzeke.

Identitatea ezkutatu

Aukera hauek dituzu: **Ezkutatu IDa**, **Erakutsi zure IDa** edo **Bistaratu IDa sarearen arabera**.

Beste batzuk

Menu honetan hauek aktibatu eta desaktibatu ditzakezu: **Deien iraupenaren abisua**, **Automatikoki berriro markatzeko aukera** eta **Grabatu ahots-deiak automatikoki**

13.4 Laguntza

Ikusi “Laguntza (SOS)”.

13.5 Konexioak

Sar zaitetz funtzio honetara zer sare nahi duzun eta nola bilatu nahi duzun hautatzeko eta ezartzeko.

- **Sare-kontua**
Menu honetan sare-kontu bat defini dezakezu.
- **Datuen konexio-doikuntzak**

Beharrezkoa denean

GPRS moduan baldintzen arabera aktibatuko da.

Beti

GPRS modu aktiboa etengabe.

- **Roamingeko datuak**

Atzerrian erabil ditzakezu GPRS datuen zerbitzuak.

- **Sarea bilatzeko modua**

Sarerako konexioa aldatu egin daiteke: “**Eskuz**” edo “**Automatikoa**” jar daiteke.

13.6 Segurtasuna

Zure telefonoa babesteko, PINa eta pasahitza aktibatu eta alda ditzakezu. Hasierakoa 1234 da. Funtzio honek aukera ematen du, halaber, markaketa finkoko zenbakiak aktibatzeko, PIN2a edo **Markatze finkoko zenbakia** aktibatuta.

PINa

Telefonoa pizten duzun bakoitzean SIM txartela babesteko kodea eskatuko dizu.

PIN2a aldatzea

Funtzioa aktibatuta badago, babes-kode bat beharko duzu SIM txartelaren ezaugarri jakinetara sartzeko (fakturazioa/kostua/markaketa finkoko zenbakiak eta abar). Hau hautatu, berri batekin ordezkatzeko (4 eta 8 digitu artean).

Telefonoa blokeatzea

Telefonoa blokeatzen du, eta pasahitz bat jartzen.

Gailua blokeatzeko pasahitza aldatzea

Telefonoaren pasahitza aldatzeko; Lehenespenez, hauxe dago jarrita: 1234.

Teklatua automatikoki blokeatu

Menu honetan, teklatua automatikoki blokeatzeko aukera aktibatu/desaktibatu dezakezu, eta ordua doitu.

Pantaila blokeatzea amaitzeko tekla erabilita

Funtzio honen bidez pantaila blokeatu dezakezu amaitzeko tekla sakatuta.

Markaketa finkoko zenbakia

Telefonoa "blokeatzeko" aukera ematen du, zenbaki batzuk soilik edo aurrezenbaki jakinen bat duten zenbakiak soilik markatu ahal izan daitezten. Funtzio hori aktibatzeko, PIN2 kodea eskatuko da.

13.7 Arauak eta segurtasuna

Telefonoari buruzko informazioa kontsultatu dezakezu: **Produktuaren mod...**, **Fabrikatzailearen iz...**, **Fabrikatzailearen h...**, **IMEI** eta Erreferentzia komertziala.

13.8 Balioak berrezartzea

Horri esker, telefonoaren doikuntzetan balio lehenetsiak berrezartzen dira. Ez dira ezabatuko azken erabiltzailearen datuak. Sartu pasahitz lehenetsia (0000), berrezartzea edo berrabiaraztea berresteko.

13.9 Informazioa

Ikusi **Zerbitzuaren baldintzak** eta **Pribatutasun-politika**.

14 Testua idazteko modua.....

Modu honekin, teklei dagozkien letrak edo karaktere-segidak hautatu behar dituzu testua idazteko. Sakatu teklak zenbait aldiz, nahi duzun letra bistaratu arte. Tekla askatzen duzunean, nabarmendutako karakterea testuan sartzen da.

Erabiltzeko oharrak..

Telefonoa erabili aurretik, irakurri arretaz kapitulu hau. Fabrikatzailea ez da izango telefonoa behar bezala ez erabiltzeagatik eta/edo eskuliburu honetako argibideen arabera ez erabiltzeagatik gerta litezkeen ondorioen erantzule.

● IBILGAILUKO SEGURTASUNA:

Egin berri diren azterketek frogatu dutenez, gidatzean telefono mugikorra erabiltzea arrisku-faktore erreala da, baita esku libreko osagarria (ibilgailuetako kita, aurikularrak eta abar) erabiltzea ere. Hori dela eta, autoa aparkatu arte telefonoa ez erabiltzea aholkatzen zaio gidariari.

Gidatzen ari zaren bitartean, ez erabili telefonoa edo entzungailuak musika edo irratia entzuteko. Entzungailuak erabiltzea arriskutsua izan daiteke, eta baliteke zenbait eremutan debekatuta egotea.

Telefonoak erradiazioa igortzen du piztuta dagoenean, eta horrek interferentziak sor ditzake ibilgailuko ekipo elektronikoetan; adibidez, gurpilak ez blokeatzeko sistemetan (ABS), segurtasuneko airbagean eta abar. Beraz, arazorik ez izateko:

- Ez jarri telefonoa aginte-mahaiaren gainean edo airbaga zabaltzen den eremuan.

- Galdetu ibilgailuaren fabrikatzaileari edo kontzesionarioari ibilgailu barruko tresnak telefono mugikorraren irrati-maiztasunaren aurka behar bezala babesturik dauden.

● ERABILTZEKO KONDIZIOAK:

Telefonoak behar bezala funtziona dezan, noizean behin itzaltzea gomendatzen dizugu.

Itzali telefonoa hegazkinetan.

Ez piztu telefonoa ospitaleetan, horretarako dauden eremuetan izan ezik. Telefono hau edo beste ekipo batzuk erabiltzeak gailu elektriko eta elektronikoen edo irrati-maiztasunak erabiltzen dituzten gailuen funtzionamenduan eragin dezake.

Ez piztu telefonoa gas edo likido sukoietatik hurbil. Errespetatu arauak erregai-biltegietan, gasolina-zerbitzuguneetan, produktu kimikoen fabriketan eta leherketa-arriskua dagoen lekuetan.

Piztuta dagoenean, ez jarri inoiz telefonoa tresna mediko batetik (taupada-markagailua, belarriko protesia, intsulina-ponpa, etab.) 15 cm-ra baino gutxiagora. Bereziki deiei erantzutean, ez ipini telefonoa taupada-markagailua edo belarriko protesia duzun aldeko belarrian, ipini beste aldekoan.

Entzumen-arazorik ez izateko, hartu deia telefonoa belarrira hurbildu aurretik. Esku libreko funtzioa erabiltzean, urrundu telefonoa belarritik. Bolumen anplifikatua kaltegarria izan liteke entzumenerako.

Ez utzi haurrei telefonoa edo telefonoaren osagarriak erabiltzen edo haiekin jolasten zu inguruan ez bazaude.

Karkasa desmuntagarria ordezkatzean, kontuan izan erreakzio alergikoak eragin ditzaketen substantziak eduki ditzakeela produktuak.

Telefonoa pieza bakarrekoa bada, estalkia eta bateria ezin dira atera. Desmuntatuz gero, baliteke bermea galtzea. Telefonoa desmuntatzen baduzu, bateria hondatu eta erreakzio alergikoak eragin ditzaketen substantziak aska daitezke.

Kontu handiz ibili beti telefonoarekin, eta gorde ezazu hautsik gabeko leku garbi batean.

Ez utzi telefonoa kondizio txarrak dauden tokietan (hezetasuna edo kondentsazioa, euria, likidoak sartzea, hautsa, itsas brisa eta abar). Fabrikatzaileak 0 °C eta +40 °C bitarteko tenperatura gomendatzen du.

40 °C-tik gorako tenperatura badago, baliteke pantailan jartzen duena ez irakurtzea, baina hori behin-behineko egoera da, eta ez dakar arrisku berezirik.

Telefono-sare batzuetan, ezin da deitu larrialdi-zenbaki batzuetara. Larrialdi-deiak egiteko, ez egon zure telefonoaren mende soilik.

Ez saiatu telefonoa irekitzen, desmuntatzen edo konpontzen.

Ez dadila telefonoa erori, ez jaurti, eta ez saiatu tolesten.

Kristalezko pantaila kaltetuta, pitzatuta edo apurtuta baldin badago, ez erabili telefonoa, minik ez hartzeko.

Ez pintatu telefonoa.

TCL Communication Ltd-ek gomendatzen dituen eta zure telefono-modeloarekin bateragarriak diren bateriak, kargagailuak eta osagarriak soilik erabili. Hala egiten ez bada, TCL Communication Ltd-k eta haren filialek ez dituzte beren gain hartuko gerta daitezkeen kalteak.

Gogoratu telefonoan gordetzen duzun informazio garrantzitsu guztiaren segurtasun-kopiak egitea edo idatziz erregistratzea.

Pertsona batzuek epilepsia-krisiak jasan ditzakete edo kordea gal dezakete argi distiratsuen ondorioz (adibidez, bideojokoetakoak). Epilepsia-krisirik edo korde galerarik inoiz izan ez dutenei ere gerta dakieke. Krisiren bat jasan baduzu edo kordea galdu baduzu, edo zure familian horrelako zerbait gertatu izan bada, galdetu medikuari telefonoan bideo-joko horiek erabili aurretik edo telefonoko argi distiratsuak aktibatu aurretik.

Gurasoek zaindu behar dituzte haurrak, bideojoko horiek edo argi distiratsuak dituzten beste funtzio batzuk erabiltzen dituztenean. Norbaitek sintoma hauetako bat edukiz gero, telefonoa erabiltzeari utzi, eta medikuari galdetu behar dio: konbultsioak, begietako edo muskuluetako uzkurdurak, kordearen galera, oharkabeko mugimenduak edo desorientazioa. Sintoma horiek izateko arriskua txikitzeko, hartu neurri hauek:

- Ez aktibatu eta ez erabili argi keinukarien funtzioa nekatuta edo logurez bazaude.
- Ordu oro, gutxienez, 15 minutuko atsedena hartu.
- Argiak piztuta dauden lekuetan jokatu.
- Jokoetan ibiltzeko, ipini pantaila begietatik ahalik eta urrunen.
- Jokatzan ari zarela eskuak, eskumuturrak edo besoak nekatzen bazaizkizu edo minduta sentitzen badituzu, gelditu eta hartu atsedena ordu batzuek berriro jokatzan hasi aurretik

- Jokatzan ari zarela edo ondorenean eskuetan, eskumuturretan edo besoetan mina izaten jarraitzen baduzu, utzi jokatzeari eta galdetu mediku bati.

Zure telefonoko jokoak erabiltzean, eskuetako, besoetako, sorbaldako, lepoko edo gorputzeko beste atalen bateko giharretako mina eduki dezakezu. Segitu jarraibideei tendinitisa, karpoko tunelaren sindromea edo muskuluetako edo hezurretako beste lesiorik ez izateko:



BABESTU BELARRIAK

Entzumen-arazorik ez izateko, ez erabili bolumen altua denbora luzez. Kontuz ibili entzungailua erabiltzean gailua belarritik gertu badago

● BIZITZA PRIBATUA ERRESPETATZEA:

Telefono mugikorrekin argazkiak ateratzeari eta soinuak grabatzeari buruz zure herrialdean indarrean dauden lege eta arauak errespetatu egin behar dituzu. Arau eta lege horien arabera, baliteke erabat debekaturik egotea beste pertsona batzuen edo haien ezaugarri pertsonalen argazkiak egitea eta/edo haien ahotsak grabatzea eta argazki edo grabazio horiek erreproduzitzea edo banatzea,

bizitza pribatua urratzen dela uler bailiteke. Erabiltzailearen ardura da dagokion baimena duela ziurtatzea, beharrezkoa bada, elkarrizketa pribatuak edo konfidentzialak grabatzeko edo beste pertsona bati argazkiak ateratzeko; zure mugikorraren fabrikatzaileak, banatzaileak edo saltzaileak (eta operadoreak) ez dute izango telefonoa behar ez bezala erabiltzeak eragindako ondorioen ardurarik.

● **BATERIA:**

Aireportuetako araudiaren arabera, zure bateria ez dago kargatuta. Lehenbizi, kargatu.

Pieza bat baino gehiagoko gailuetarako:

Kontuan izan jarraibide hauek:

- Ez saiatu bateria irekitzen (substantzia kimikoak jariatzeko eta erretzeko arriskua dago).
- Ez egin zulorik bateriari, ez desmuntatu eta ez eragin zirkuitulaburrik.
- Ez bota sutara, ezta zaborretara ere, eta ez eduki 60 °C-tik gorako tenperaturetan.

Bateria bota nahi baduzu, ziurtatu indarrean dauden ingurumena babesteko legeen arabera berreskuratuko dela. Ez erabili bateria sortu zen

helbururako ez den beste erabilera baterako. Ez erabili inoiz hondatutako bateriarik edo TCL Communication Ltd-ek eta/edo haren filialek aholkatu gabekorik.

Atera ezin den bateria eta pieza bat baino gehiago dituzten gailuetarako:

Kontuan izan jarraibide hauek:

- Ez saiatu bateria ateratzen, ordezkatzen edota irekitzen.
- Ez egin zulorik bateriari, ez desmuntatu eta ez eragin zirkuitulaburrik.
- Ez jarri telefonoa sutan, ez eta zaborretan ere; ez eduki 60 °C-tik gorako tenperaturetan.

Telefonoa eta bateria indarrean dagoen ingurumen-legeria aintzat hartuta bota behar dira.



Zure telefonoak, bateriak edo osagarriek ikur hau badute, gune hauetako batera eraman behar dituzu gehiago erabil ezin ditzakezunean:

- Ekipo-mota horientzako edukiontzi bereziak dituzten udal-hondakinak deuseztatzeko zentroetara.

- Saltokietako edukiontzietara.

Produktuak birziklatu egingo dira, ingurumenean substantziarik ez zabaltzeko, eta haien osagaiak berrerabili egingo dira.

Europar Batasuneko herrialdeetan:

Doakoa da bilketa-puntuetara sartzea, eta ikur hori duten produktu guztiak toki horietan utzi behar dira.

Europar Batasuneko kide ez diren herrialdeetan:

Herrialde edo eskualde horretan biltzeko eta birziklatzeko aukera badago, produktu horiek ez dira bota behar zakarrontzi arruntetara. Bilketa-puntuetara eraman behar dira, birziklatzera.

KONTUZ! BESTE MODELO BATEN BATERIA JARRIZ GERO, LEHERTZEKO ARRISKUA DAGO. ERABILITAKO BATERIAK BOTATZEKO, SEGI EMANDAKO JARRAIBIDEEI.

● **KARGAGAILUAK**

Saretik elikatzen diren kargagailuek 0 °C eta 40 °C bitartean funtzionatzen dute. 0°C - 40°C

Informazio-tratamendurako arauak eta bulegoko segurtasunari dagozkionak bete behar ditu telefono mugikorraren kargagailuak. 2009/125/

EE Ekodiseinuari buruzko Direktiba ere bete behar du. Zehaztapen elektriko ugari aplika daitezkeenez, gerta liteke herrialde bateko kargagailu batek beste herrialde batean ez funtzionatzea. Diseinatu ziren helbururako soilik erabili behar dira.

Uhin elektromagnetikoak..

Telefono mugikorren modelo guztiak nazioarteko eskakizunekin (ICNIRP) edo Europako 2014/53/EU (RED) direktibarekin bat etorri behar dute, eta hori, gainera, merkatuan sartu aurretik bete beharreko baldintza da. Osasuna eta segurtasun publikoa babestea, batez ere telefono mugikorren erabiltzaileena, eskakizun edo direktiba horien funtsezko betebeharra da.

GAILU HONEK UHIN ELEKTROMAGNETIKOEKIKO ESPOSIZIOARI BURUZKO NAZIOARTEKO ARAUAK BETETZEN DITU

Gailu mugikor hau irrati-uhinen transmisorea eta hartzailea da. Nazioarteko arauak gomendatutako irrati-uhinekiko (irradi-maiztasuneko eremu elektromagnetikoak) esposizio-mugak ez gainditzeko moduan diseinatu da. Jarraibide horiek ICNIRP zientzia-erakunde independenteak sortu ditu, eta pertsona ororen adina eta osasun-egoera gorabehera segurtasuna bermatzeko diseinatutako babes-tarteak dituzte.

Irrati-uhinekiko esposizioaren arauen neurketa-unitatea absortzio espezifikoko koefizientea edo SAR da. Telefono mugikorretarako, 2 watt/kilogramo SAR muga dago.

SAR kalkulatzeko probak funtzionamendu estandarreko posizioetan egiten dira, eta telefonoak potentzia-maila ziurtatu handienera transmititzen du probaturiko frekuentzia-banda guztietan. ICNIRPrek arabera, hauek dira gailu-modelo honetarako SAR balio handienak:

Modelo honetarako eta erregistratutako kondizioetarako gehieneko SAR balioak		
SAR buruan	GSM 1800 + bluetootha	0.13 W/kg
SAR gorputzean	GSM 900 + bluetootha	1.33 W/kg

Gailua erabiltzean, haren benetako SAR balioak adierazitako balio horiek baino askoz txikiagoak dira. Izan ere, eraginkortasun-sistema betetzearren eta sareko interferentziak murriztearren, telefonoaren potentzia operatiboa automatikoki murrizten da deiak egiteko potentzia osoa behar ez denean. Gailuaren potentzia-irteera zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta txikiagoa izango da SAR balioa. Gorputzeko SAR probak egiteko, 5 mm-ko tarteak utzi da gorputzaren eta telefonoaren artean. Telefonoa erabiltzen denean irrati-maiztasunarekiko esposizioari buruzko arauak betetzeko, gutxienez tarte hori utzi beharko litzateke telefonoaren eta gorputzaren artean. Zuk erabiltzen duzun osagarria baimendua ez bada, ziurtatu produktuak ez duela metalik eta telefonoa gorputzetik tarte horretara geratzen dela.

Osasunaren Mundu Erakundeak, FDAk (US Food and Drug Administration, Elikagaiak eta Sendagaiak Kontrolatzeko Estatu Batuetako Erakundea) eta beste erakunde batzuek jakinarazi dute kezkatuta daudenean eta esposizioa murriztu nahi dutenek esku libreko gailu bat erabil dezaketela telefonoa burutik eta gorputzetik urrun edukitzeko deietan, edo telefonoan igarotzen duten denbora murriz dezaketela.

Informazio gehiago izateko, ikus www.alcatelmobile.com webgunea.

OMEk eremu elektromagnetikoei eta osasun publikoari buruz duen informazio osagarria Interneteko helbide honetan aurkituko duzu: <http://www.who.int/peh-emf>.

Zure telefonoak barneko antena bat du. Komunikazioetan funtzionamendu-kalitatetik onena izateko, ez ukitu, eta ez hondatu.

Gailu mugikorrek funtzio ugari dituztenez, belarriaren ondoan erabiltzeaz gain, beste posizio batzuetan ere erabil daitezke. Entzungailuekin edo USB datu-kablearekin erabiltzean, gailuak zehaztutako jarraibideak bete behar ditu. Beste osagarriren bat erabili behar baduzu, ziurtatu ez duela inolako

metalik, eta jarri telefonoa gorputzetik 5 mm-ra gutxienez.

Kontuan izan gailua erabiltzen dizunean balitekeela zure datu pertsonal batzuk gailu nagusiarekin partekatzea. Zure ardura da zure datu pertsonalak babestea, eta ez partekatzea baimendurik gabeko gailuekin edo zure gailura konektatutako hirugarrenen gailuekin. WiFi duten produktuen kasuan, konfiantzazko WiFi sareetara bakarrik konektatu. Gainera, zure produktua sarbide-puntu gisa erabiltzen duzunean (posible den kasuetan), erabili sareko segurtasuna. Aholku hauek beteta, zure gailura baimendu gabe sartzeari saihestuko duzu. Mugikorrek hainbat lekutan gorde dezake informazio pertsonala, adibidez, SIM txartelean, memoria-txartelean eta telefonoaren memorian. Egiaztatu informazio pertsonal guztia ezabatu duzula gailua birziklatu, itzuli edo bota aurretik. Hautatu kontu handiz zure aplikazio eta eguneraketak, eta instalatu konfiantzazko iturrietatik soilik. Zenbait aplikaziok zure telefono mugikorraren errendimenduari eragin diezaioke, eta informazio pribatura sartu, adibidez, kontuko datuetara, deien datuetara, kokapenaren xehetasunetara eta sareko baliabideetara.

Kontuan izan TCL Communication Ltd-rekin partekatutako datu guztiak datuak babesteko legediari jarraituz biltegitzen direla. Hala, TCL Communication Ltd-ek datu pertsonal guztiak babesteko neurri tekniko eta antolaketako neurri egokiak hartzen eta aplikatzen ditu; esate baterako, baimendu gabeko edo legez kanpoko datu-prozesatzearen aurkakoak edo datuok galtzearen edo ustekabearen hondatzearen aurkakoak. Neurri horiek segurtasun-maila egokia emango dute, hauek kontuan hartuz:

- (i) eskura dauden baliabide teknikoak,
- (ii) neurriak inplementatzeak duten kostua,
- (iii) datu pertsonalak prozesatzeak dakartzan arriskuak, eta
- (iv) prozesatutako datuen sentikortasun-maila.

Edozein unetan sar zaitezke zure datu pertsonaletan, eta datuok alda eta edita ditzakezu, zure erabiltzaile-kontuan sartuz, zure erabiltzaile-profila bisitatuz edo zuzenean gurekin harremanetan jarritz. Guk zure datu pertsonalok editatzea edo ezabatzea nahi baduzu, zure nortasuna frogatzeko eskatuko dizugu beharbada, zure eskaria bete aurretik.

● Baimenak



MicroSD-ren logotipoa marka komertziala da.



Bluetooth hitzaren marka eta logotipoak Bluetooth SIG, Inc. enpresarenak dira, eta TCL

Communication Ltd-k eta haren filialek lizentziapean erabiltzen dituzte marka horiek. Beste marka eta izen komertzial batzuk beren jabeenak dira. **Alcatel 3026X** Deklarazio-IDa

Bluetootha: D033125

Informazio orokorra...

- **Interneteko helbidea:**
www.alcatelmobile.com
- **Bezeroarentzako arreta:** ikusi telefonoarekin datorren "ZERBITZUAK" liburuxka, edo bisitatu gure webgunea.
- **Fabrikatzailea:** TCL Communication Ltd.
- **Helbidea:** 5/F, Building 22E, 22 Science Park East Avenue, Hong Kong Science Park, Shatin, NT, Hong Kong.

- **Etiketa elektronikoa:** sartu aukera honetan Ezarpenak\Araudiak eta segurtasuna ukituta, edo sakatu *#07#; etiketatzeari buruzko informazio gehiago aurkituko duzu ⁽¹⁾.

Gure webgunean, ohiko galderen atala kontsultatu dezakezu (FAQ). Posta elektronikoa bidez ere jar zaitezke gurekin harremanetan, edozein zalantza galdetzeko.

Irrati-ekipo honek irrati-maiztasun eta potentzia maximoekin funtzionatzen du. Hona hemen datuak:

2G 850/900: 33 dBm

2G 1800/1900: 30 dBm

3G 900/2100: 24 dBm

Bluetootha, 2,4 GHz-ko banda: 2 dBm

- **Araudiari buruzko informazioa**

Honen bidez, TCL Communication Ltd-k adierazten du irrati-ekipo honek (**Alcatel 3026X** modelo) 2014/53/EU Direktiba betetzen duela.

CE adostasun-deklarazioaren testu osoa Interneteko helbide honetan dago: http://www.alcatelmobile.com/EU_doc

⁽¹⁾ Herrialdearen arabera.

- **Informazio osagarria**

Irrati-ekipoak ondo funtzionatzea eragiten duten osagarrien eta osagaien deskribapena, softwarea barne, CE adostasun-deklarazioaren testu osoan irakur daiteke, Interneteko helbide honetan: http://www.alcatelmobile.com/EU_doc

Lapurreten aurkako babesa ⁽¹⁾

Zure telefonoa IMEI zenbakiarekin (serie-zenbakia) identifikatuta dago; paketearen etiketan eta telefonoaren memorian dago zenbaki hori. Telefonoa erabiltzen duzun lehen aldian zenbakia idatziz jasotzea eta leku seguru batean gordetzea gomendatzen dizugu (*#06# sakatuta). Gerta liteke poliziak edo zure operadoreak eskatzea telefonoa lapurtuz gero. Telefonoa lapurtzen badizute, zenbaki horrekin, telefonoaren funtzionamendua blokeatu ahal izango duzu, eta beste inork ezingo du erabili, ezta SIM txartel berria jarrita ere.

Erantzukizunetatik salbuestea

Litekeena da desberdintasunak egotea eskuliburu honen eta telefonoaren benetako funtzionamenduaren artean, zure telefonoaren softwarearen bertsioaren arabera edo operadore bakoitzaren zerbitzu espezifikoaren arabera.

⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun ala ez.

TCL Communication Ltd-k ez du bere gain hartuko desberdintasun horien (halakorik balego) lege-ardurarik, ez eta haiek izan ditzaketen ondorioenik ere. Erantzukizun hori operadoreak soilik izango du. Hirugarren batzuek gailuan sartzeko bidaltzen dituzten materialak ("Hirugarren batzuen materialak") izan ditzake gailu honek, jatorri-kodeko edo kode exekutagarriko softwarea eta aplikazioak barne. Telefono honetako hirugarren batzuen material guztiak bere horretan azaltzen dira, inolako bermerik gabe (ez espliziturik ez impliziturik). Eroslea arduratzen da TCL Communication Ltd-k gailu mugikorren eta telefonoen fabrikatzaile gisa dagozkion betebeharrak guztiak bete izanaz, jabetza intelektualeko eskubideen arabera. TCL Communication Ltd-k inola ere ez du bere gain hartuko hirugarren batzuen materialek dituzten funtzionamendu-akatsen edo telefono honekin nahiz beste gailuren batekin batera aritzeko dituzten bestelako akatsen gaineko ardurarik. Legearen arabera, TCL Communication Ltd-k ez du erantzukizunik erreklamazioetan, demandetan, auzietan edota ekintzetan, eta, zehatzago (baina ez muga horrekin), erantzukizun zibileko ekintzetan, hirugarren batzuen material horien erabileran edo erabiltzeko saiakeran sortzen den edozein ardurarik dagoenez. Bestalde, TCL Communication Ltd-k doan eman dituen uneko Hirugarrenen materialek ordaintzeko eguneratzeak eta bertsio berriak izan ditzakete

etorkizunean. TCL Communication Ltd-k kostu gehigarriak eta bestelakoei lotutako ardurarik oro ukatzen du; eroslearena izango da ardurarik hori. TCL Communication Ltd ez da erantzule aplikazioen bat ez badago eskuragarri, eroslearen operadorearen eta herrialdearen arabera baita eskuragarritasuna. TCL Communication Ltd-k une oro du eskubidea bere telefonoetan hirugarren batzuen materialak gehitzeko edo kentzeko, aldez aurretik jakinarazi gabe. TCL Communication Ltd-k inola ere ez du izango erantzukizunik material horiek kentzeak izan ditzakeen eraginean.

Telefonoaren bermea

Zure telefonoa bermatuta dago bi (2) urterako⁽¹⁾, jatorrizko fakturan ageri den erosketa-datatik zenbatzen hasita, erabilera normalean agertzen den akats ororen aurka. Behar bezala beteta aurkeztu behar da faktura hori, garbi adieraziz: izena, modeloa, IMEIa, data eta saltzailea.

Telefonoak erabilera normala eragozten dion akatsen bat baldin badu, berehala eman behar diozu horren berri zure saltzaileari, eta, jatorrizko fakturarekin batera, telefonoa eraman.

⁽¹⁾ Erabileraren eta sarearen konfigurazioaren araberakoa izango da telefono mugikorraren bateriaren iraupena hitz egiteko denborari, jarduerarik gabeko denborari eta biziak erabilgarri osoari dagokienez. Bateriak hornigai suntsigarritzat jotzen direnez, zehaztasunek diote telefonoa erosi ondorengo lehen sei (6) hilabeteetan eta 200 kargatzeetan (gutxi asko) izango duela errendimendurik onena zure telefonoak.

Akatsen bat duela egiaztatzen bada, telefonoa (edo haren piezaren bat) konpondu edo aldatu egingo zaizu, zer komeni den. Konpondutako telefonoek eta haien pieza osagarriek hiru (3) hilabeteko bermea dute akats bererako. Antzeko funtzionaltasuna eskaintzen duten pieza berregokituekin egin liteke konponketa edo telefono-aldaketa.

Piezen eta eskulanaren kostua sartzen da berme honetan, baina ez beste inolako kosturik.

Berme honek ez ditu estaltzen telefonoak eta/edo pieza osagarriek arrazoi hauengatik izaten dituzten akatsak:

- 1) Telefonoa erabiltzen den eremu geografikoan aplikatzen diren erabilera- edo instalazio-jarraibideak edo segurtasun-arauak eta teknikoak ez betetzea.
- 2) TCL Communication Ltd-k emandakoa edo gomendatutakoa ez den ekipo batera konektatzea.
- 3) Konponketak edo aldaketak TCL Communication Ltd-k edo haren filialek edo baimendutako mantentze-lanetako zentroak baimendu gabeko herritar partikularrek egiteagatik.
- 4) TCL Communication Ltd-ek baimendutakoak ez diren pertsonen software- edo hardware-aldaketak edo -doikuntzak egin badituzte.

- 5) Eguraldi txarragatik, ekaitz elektrikoengatik, suteengatik, hezetasunagatik; likido, jaki edo produktu kimikoren bat sartzeagatik, artxiboak deskargatzeagatik, kolpeak emateagatik, goi-tentsioagatik, korrosioagatik, oxidazioagatik eta abarregatik.

Telefonoa ez da konponduko etiketak edo seriezenbakiak (IMEI) kenduta badaude.

Berme honek ez die eragiten kontsumitzaileak 2003ko uztailaren 10eko 23/2003 legearen arabera dituen eskubideei.

Inondik ere ez dira izango TCL Communication Ltd edo haren filialak inolako ustekabeko kalteren edo ondorioren erantzule (besteak beste, eragiketen edo jarduera komertzialaren etenarena), baldin eta legeak kalte horien gaineko erantzukizunik egotzen ez badie.

Herrialde edo estatu batzuek ez dute uzten ustekabeko kalteak edo ondorioak salbuesten edo murrizten, ezta berme inplizituen iraupena mugatzen ere; beraz, litekeena da aipatutako murrizketak edo salbuespenak zuri ez aplikatzea.

Zure telefonoaren legezko bermearen

aplikazioari buruzko erreklamazioen bat egin nahi izanez gero, 2007/11/16 Legeak agintzen duenari jarraiki, ipini gurekin harremanetan bezeroaren arretarako telefonoaren bidez (91 375 33 74) edo helbide honetara idatziz:

TCL Communication Europe SAS

Immeuble Le Capitole

Parc des Fontaines


55, avenue des Champs Pierreux

92000 Nanterre

Frantzia

Arazoak eta irtenbideak.....

Zerbitzu-zentroarekin harremanetan jarri aurretik argibide hauei kasu egitea gomendatzen da:


- Bateria guztiz kargatzea gomendatzen da , funtzionamendu optimoa lortzeko.
- Ez gorde datu-kantitate handirik telefonoan, horrek funtzionamenduari eragin baitiezaioke.
- Telefonoa formateatzeko edo softwarea hobetzeko, erabili erabiltzaile-datuen formatua (erabiltzaile-datuak formateatzeko, sakatu *#336699*#). Erabiltzailearen datu GUZTIAK (kontaktuak, argazkiak, mezuak eta fitxategiak) behin betiko galduko dira.

Egjaztatu puntu hauek ere:

Telefonoa blokeatuta dago, edo ez da pizten

- Egjzatzatu bateriaren kontaktuak ondo daudela; atera bateria eta sartu berriro, eta piztu telefonoa.
- Egjzatzatu bateriaren kargatze-maila egokia dela, eta kargatu gutxienez 20 minutuz.
- Hala ere ez badu funtzionatzen, erabili erabiltzaile-datuak formateatzeko aukera telefonoa berrabiarazteko.

Telefonoa desaktibatuta geratu da duela zenbait minutu

- Berrabiarazi telefonoa,  tekla luze sakatuta.
- Atera bateria, eta sar ezazu berriro. Ondoren, berrabiarazi telefonoa.
- Hala ere ez badu funtzionatzen, erabili erabiltzaile-datuak formateatzeko aukera telefonoa berrabiarazteko.

Telefonoa bakarrik itzaltzen da

- Egjzatzatu ekipoa blokeatuta dagoela erabiltzen ari ez zarenean, eta ziurtatu ez duzula ustekabean itzali, pizteko tekla sakatuz blokeatzen ari zarela.
- Bateriaren kargatze-maila adierazten du.
- Hala ere ez badu funtzionatzen, erabili erabiltzaile-datuak formateatzeko aukera telefonoa berrabiarazteko.

Telefonoa ez da behar bezala kargatzen

- Egjzatzatu Alcatel bateria eta kaxako kargagailua erabiltzen ari zarela.
- Egjzatzatu bateria zuzen sartuta dagoela, eta, beharrezkoa bada, garbitu bateriaren kontaktua. Sartu egin behar da kargagailua konektatu aurretik.
- Begiratu ea bateria erabat agortuta dagoen; denbora luzez egon bada deskargatuta, ia 20 minutu igaro daitezke pantailan bateriaren karga adierazten duen ikonoa agertu arte.

- Egiaztatu baldintza egokietan kargatzen ari dela (0 °C eta +40 °C bitartean).
- Atzerrian, egiaztatu sarrerako tentsioa bateragarria dela.

Nire telefonoa ez da konektatzen inolako saretara, edo “Zerbitzurik gabe” bistaratzen da

- Saiatu telefonoa beste kokaleku batetik konektatzen.
- Galdetu operadoreari sareko estalduraren berri.
- Galdetu operadoreari SIM txartelaren baliozkotasunaren berri.
- Saiatu eskuz hautatzen sare erabilgarria(k).
- Sarean gainkarga badago, saiatu berriz geroago.

SIM txartel baliogabea

- Egiaztatu SIM txartela behar bezala sartuta dagoela.
- Begiratu SIM txartelaren txipa hondatuta edo marratuta ote dagoen.
- Egiaztatu zure SIM txartelaren zerbitzua erabilgarri dagoela.

Ezin da deia egin

- Egiaztatu markatu nahi duzun zenbakia markatu duzula, eta sakatu **Bidali** tekla.
- Nazioarteko dei bat bada, begiratu herrialdeko eta eremuko kodeak ondo dauden.

- Egiaztatu telefonoa sare batera konektatuta dagoela, eta sareak gainkargarik ez duela edo erabilgarri dagoela.
- Galdetu zure operadoreari hitzartutako harpidetza zertan den (kreditua, SIM txartelaren baliozkotasuna eta abar).
- Egiaztatu ez dituzula irteerako deiak debekatu.
- Egiaztatu zure telefonoa ez dagoela hegazkin-moduan.

Ezin da dei bat jaso

- Egiaztatu zure telefonoa piztuta eta sare bati konektatuta dagoela (begiratu sareak gainkargarik duen edo ez ote dagoen eskuragarri).
- Galdetu zure operadoreari hitzartutako harpidetza zertan den (kreditua, SIM txartelaren baliozkotasuna eta abar).
- Egiaztatu ez dituzula sarrerako deiak desbideratu.
- Egiaztatu ez dituzula dei jakin batzuk debekatu.
- Egiaztatu zure telefonoa ez dagoela hegazkin-moduan.


Solaskidearen izena edo zenbakia ez da bistaratzen deia jasotzean

- Galdetu operadoreari zerbitzu horretara harpidetuta zauden.
- Deitzen ari den pertsonak bere izena edo zenbakia ezkutatu du.

Ez ditut nire kontaktuak aurkitzen

- Egiaztatu zure SIM txartela ez dagoela egoera txarrean.
- Egiaztatu SIM txartela behar bezala sartuta dagoela.
- Inportatu telefonora SIM txartelean gordetako kontaktu guztiak.

Deien soinuaren kalitatea txarra da

- Dei bat egiten ari zarela bolumena doitu dezakezu nabigazio-tekla sakatuta.
- Begiratu seinalearen intentsitatea .
- Egiaztatu entzungailua, konektorea edo telefonoaren bozgorailua garbi daudela.

Ezin ditut erabili eskuliburuan azaltzen diren funtzioak

- Galdetu operadoreari zure harpidetzan zerbitzu hori sartzen den.
- Egiaztatu funtzio horrek ez duela Alcatelen osagarriren bat behar.

Nire kontaktuetako zenbaki bat hautatzen dut, baina ezin dut markatu

- Egiaztatu zenbakia ongi gorde duzula zure fitxategietan.
- Egiaztatu, atzerrira deitzen baduzu, herrialdearen aurrezenbakia hautatu duzula.

Ezin diot kontaktu bat gehitu nire kontaktuen zerrendari

- Ziurtatu SIM txartela ez dela iritsi gehienezko kontaktu-kopurura; ezabatu kontaktuak, edo gorde kontaktuak telefonoaren kontaktuetan.

Solaskideek ezin dute mezurik utzi nire ahots-postontzian

- Galdetu sareko operadoreari zerbitzu hori eskuragarri dagoen.

Ezin naiz ahots-postontzira sartu

- Ziurtatu zure operadorearen ahots-postontziko zenbakia zuzena dela, hemen: **"Mezuak\Ahots-postontzia"**.
- Sarea okupatuta badago, saiatu geroago.

Keinuka ari den ikono bat bistaratzen da pantaila nagusian.

- Mezu gehiegi gorde dituzu SIM txartelaren memorian; kendu zenbait edo gorde itzazu telefonoaren memorian.

SIM txartelaren PINa blokeatuta dago

- Jarri harremanetan sare-operadorearekin, desblokeatzeko PUK kodea lortzeko (desblokeatzeko pasahitz pertsonala).

Nola lortu bateriak gehiago irautea

- Bateria osorik kargatu (3 orduz, gutxienez).

- Osorik kargatzen ez baduzu, baliteke gero karga-mailaren adierazlea zehatza ez izatea. Kargagailua deskonektatu ondoren, itxaron 20 bat minutu adierazpen zehatza izateko.
- Piztu atzealdeko argia behar duzunean.

Ezin dut MMSrik bidali edo jaso

- Egiaztatu tokia libre duzula telefonoaren memorian.
- Egiaztatu operadorearekin zerbitzu hau baduzun edo ez, eta egiaztatu MMS parametroak.
- Egiaztatu operadorearekin SMS zentroaren edo MMS profilen kopurua.
- Litekeena da zerbitzariaren zentroa betea egotea. Saiatu geroago.

Beste gailu batzuek ez dute detektatzen telefonoa bluetooth bidez

- Egiaztatu Bluetooth funtzioa aktibatuta dagoela eta zure mugikorra ikusgai dagoela beste erabiltzaileentzat.
- Egiaztatu bi telefonoak bluetootharen atzemate-eremuan daudela.